

## **Muxikako Udalak liburutegia lekuz aldatuko du laster**

**Gainza alkatearen esanetan, eskola txiki geratu delako pentsatu dugu liburutegia bertan jartzea.**

### **ENDIKA URLEZAGA**

Muxikako Udalak Udal liburutegi berria zabalduko du laster Kurtzero auzoko Zubietaerrotara erabilera anitzeko eraikinean. Jon Mikel Gainza herriko alkateak jakinarazi bezala, datorren astean liburutegi berria martxan izatea espero dugu. Alkateak gaineratu duenez, ziur aski astelehenean bertan ireki ahal izango dugu.

Orain arte Udal liburutegia Urretxindorra eskolan egon da, baina, Gainzaren hitzetan, eskola txiki geratu da eta metroak irabazteko liburutegia Zubietaerrotara aldatzea pentsatu dugu.

Gainera, kokagune berria aproposagoa dela uste du alkateak. Izan ere, aldaketagaz eskolako aldapa igo beharrik ez dela izango argudiatzen du. Adierazi duenez, gertuago eta leku aproposagoan izango da liburutegia aurrerantzean.

Liburutegi berria erabilera anitzeko eraikinaren lehen solairuan dago eta liburu guztiak bertan daude dagoeneko. Alkatearen hitzetan, inbentarioa egiten eta sistema informatizatzen ari gara. Ondoren apaletan jartzea baino ez da faltako.